

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 186. alea - 2014ko ekaina



Itziar,
denon ahotan



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa



kutxabank

RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behean - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



Sokagin Kalea, 2 behean - 20820 DEBA
943 029 186



Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ekodenda,
dieta, dietika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak

- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14

943 19 24 42

sasoiKO@hotmail.com

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea

Erredakzio taldea eta

kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,
Ina Oiarzabal, Migel M.Lekube
(Lutxo), Lukax Dorronsoro,
Koldo Aperribai, Izaro
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane
Aizpurua, Haika Aizpurua,
Nekane Goikoetxea, Mattin
Urbieta, Mikel Aizpurua,
Debako Gazte Asanblada,
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia:

Erredakzio taldea

Publizitatea:

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILERAK



LAGUNTZAILERAK



Deba Udal



HEZKUNTZA, HAZIUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza, Hizkuntza, Hizkuntza Politika
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Departamento de Política Lingüística



Gipuzkoako Foru Aldundia

aurkibidea

05-06

Goizane Aizpurua, "Sormenak lanean harrapa zaitzala...";
Debako Gazte Asanblada, "Debako gazteria".

07

KRONIKA

Yolanda Arrieta Ostolaza Udal Liburutegian, Mintzalagunen ikasturte amaierako ekimena...



10

ALBISTEA

Agenda 21 egitasmoaren harira, ikasleek udaletxera eramane dituzte euren proposamenak



15

KRONIKA

Ipuin kontaketen saioak; Paella txapelketako antolatzaileak, esker onez



Ander Salegi

16-17


LABURRAK

Geoparkearen Gunea inauguratu da Turismo Bulegoan, Hiru Txirlo Bolo Txapelketako finala Lasturren, Antzerki Astea...



18

ZERBITZUAK



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Urte on askotan, Potzu!

Guk aspaldi zabaldu genion esperantzari leihoa, baina, beste behin ere, Valladolideko espetxeraino bidali behar dugu gure agurra: Urte askotarako Potzu.

Hemen asko hitz egiten da giza eskubideez; epaitua izan zinen eta ezarritako zigorra betetzen ari zara; baina, non geratzen da zure ingurune sozial eta afektibotik gertuen dagoen espetxean egoteko duzun eskubidea? Zilegi al da Debatik 354 kilometrora egotea? Hor mantentzen zaituzten egun bakoitzeko, zure eskubidea eta zure ingurukoena urratzen jarraitzen dute.

Baina, zer demontre, gaur ez da kexutarako ueña. Ekainaren 19an zure urtebetetze eguna duzu eta zorionak. Zorionak eta urte askotarako! Urte on asko opa dizkizugu horma horietatik kanpo; baina, momentuz, Euskal Herriratzea aldarrikatzen dugu, Zeure Herrian egotea, maite zaituzten eta maite dituzunetatik hurbil.

Beraz, "Preso eta iheslariak Euskal Herrira" oihukatuz amaituko dugu. Ondo izan.

Presoekiko elkartasun taldea

Badatoz Kolorez Blai! Udalekuak



Aurten ere Debako eta Itziarko udalekuak Zuhatzka Euskara Elkartearen baitan dagoen Kolore Anitz aisialdi taldeko kideok kudeatuko ditugu.

Iaz bezala, izen-ematea oso arrakastatsua izan da eta horrek indarra ematen digu aurtengo erronkari gogoz heltzeko. Zorionez, gainera, izena eman duten haur guztiak onartuak izan dira.

Mila esker gugan konfiantza jarri duzuen guzti-guztiori! Laster kaleak koloreztatzen ikusiko dugu elkar!

Gogoratu, bide batez, udalekuetan parte hartu-

ko duten haurren gurasoekin bilerak egingo ditugula ekainaren 20an (ostirala). Arratsaldeko 17:30ean Itziarko apaiz etxean egingo da lehenbiziko bilera, eta arratsaldeko 19:00etan Debako udaletxeko pleno aretoan burutuko da bigarren batzarra. Udalekuen nondik norakoak izango ditugu hizpide; elkar ezagutu eta edozein zalantza argitzeko aukera ere izango da batzarretan. Bertan elkar ikusiko dugulakoan, laster arte eta ondo izan!!!

Kolore Anitz Aisialdi Taldea





GOIZANE AIZPURUA

SORMENAK LANEAN HARRAPA ZAITZALA...

Sormenak lanean harrapa zaitzala esan ohi da. Horrek esan nahiko luke ahalik eta denbora gehien lanean jardun beharko genukeela, edo sortu nahi dugun horren aurrean, paper zuria, material ezberdinak, ordenagailua, mihise berri bat..., egon beharko ginatekeela.

Nik hala ere zera gehituko nioke: sormenak lanean harrapa zaitzala eta burua zabalik duzula. Sorkuntzaren munduan lan egiten duen orok ondo baino hobeto baitaki nola ideia berrien aurrean burua zabalik eta adi izan behar dugun. Ez da erreza ordea.

Nik hala ere zera gehituko nioke: sormenak lanean harrapa zaitzala eta burua zabalik duzula. Sorkuntzaren munduan lan egiten duen orok ondo baino hobeto baitaki nola ideia berrien aurrean burua zabalik eta adi izan behar dugun. Ez da erreza ordea.

Adibide simple batera jo genezake: hau idazten hasi aurretik orria zuri zegoen; orain, ordea, inurriak bailiran hizkiek bata bestearen atzetik zurtasun hori estali dute. Horretarako ordenagailu aurrean jarri naiz, orri zuriaren aurrean, sormenak lanean harrapa nazan, burua zabalik eta begiak zabalago baina ezer. Testu bat sortzeko ideiak ez dabilta nire buruan.

Aurreko kolaborazioetan idatzitakoari begira jarri naiz. Dirudienez badira lau urte **Berriketan**-erako kolaborazioak idazten ditudala. Urte bakoitzeko idazlan bana, 11 hilabete zer idatzi pentsatzeko eta eguna iristean sormenak ez al nau lanean harrapatu behar? Hori bai, hilabete guzti horietan mila ideia pasa dira nire burutik. Zeri buruz idatzi? Amamak nola bere etxeko leihotik mundua

aldatzen ikusten zuen, gaur egun nik nola aldatzen jarraitzen duen ikus dezakedan leiho berbera. Gai kritikoagoren bat agian zaborrak eta birziklapenaren kontua (baina uste dut aurreratu egin zaizkidala), Itziar eta auzo-udalari buruz, edota Hauteskunde Europarrei buruzko hausnarketa sakona.


Badira egungo gai gehiago ere, uda badator eta hondartzan txukuntze lanetan ari dira urtaro berria beso zabalik jasotzeko. Eta nola ez igande honetan Durango eta Iruñea lotuko dituen kateari buruz.

Gure Esku Dago eta igandean ere eskuz esku egungo delako (Ni banua, eta zu?). Baina unetxo batez pentsatzen jarriz gero irakurleak begi aurrean testua izango duenerako egungo gaiak bestelakoak izango dira. Eta orduan zeri buruz idatzi?

Nire burutapenei buruz? Inguruan ikusten ditudan gauzei buruz? Hausnartzera nararmaten gai eta ondorioei buruz? Burutapenei buruz? Nola egungo teknologiak gelditzeko denborarik uzten ez digunari buruz? Nola gaur egun gauza bati gure kontzentrazioaren %100a eskaintzeko gai ez garenari buruz? Ea nora goazenari buruz? Ea nondik abiatuko garenari buruz? Haiei buruz idatzi daitezkeen horrenbeste gai daude eta gaurkoan bat ere ez dator nire burura luze edo labur idazteko.

Eta konturatzerako zuria, inurriak diruditen hizki lerroz estali da.





DEBAKO GAZTERIA

Debako gazteriaren pasibotasuna eta gogo falta erakusteko idatzi bat da hau. Azken urte hauetan gazteriaren kide gehienak pasibotasun autopistan bete-betean erori dira: lokalak, tabernak, sofak... "Zirkulu bizioso" batean sartu dira gazte asko. Gaixotasun honek sintoma hauek ditu: ekintzak burutzeko gogo falta, Play Station edo beste joko batzueganako dependetzia eta, noski, gaztetxe edo beste eremu edo ekitaldi batzuetara alkohola izeneko sustantzia bat badago bakarrik agertzea.

Badakigu askotan gazte askok ez duzuela zuen burua D.G.A.-n (Debako Gazte Asanbladan) ikusten, baina asanbladako kideok besoak zabalik egingo dizuegu ongiatorria. Azkenean, gazte asanblada bat Gaztetxeko eta Gaztetxeak egiten dituen ekintzen dinamizatzailea baita, beste gauza askoren artean.

Zenbat eta gazte gehiago izan asanbladan, orduan eta ideia gehiago izango ditugu, baita gai batzuk aztertzerakoan ikuspegi desberdin gehiago ere. Eta horrek herriari eta gazteriari begira ekintza aberatsagoak ekar ditzake. Urtero egiten diren ekintzak (garagardo festa, aste internazionalista edo galerna festa) hobetzeko aukera ere bai.

Hala ere, D.G.A. ez da herriko eragile bakarra eta argi eduki: zuk borrokatu nahi duzun esparrurako

talderik ez baduzu aurkitzen, Gazte Asanblada talde hori aurrera ateratzeko prest dago; gogoia eta ilusioa tartean badaude, noski.

Pasibotasunaren aurkako txertoa herriko erakunde askok ezarri diezazukete: D.G.A., Ikasle Asanblada, Gure Esku Dago... Txerto horrek izen asko ditu: aktibotasuna, parte-hartzea... Asanbladak ostiraletan burutzen dira, 22:00etan Gaztetxean.

Gazte, esnatu!!! Debako gazte mugimenduak behar zaitu!!!

Jon Yarza



Seven Clovers

Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Nº 379

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Idazketa sortzailea: pausoz pauso, tantaz tanta



Ekinaren bidez ikasten ditugu benetako ikasgaiak; eta, horrenbestez, esango nuke idatziz ikasten dela idazten, nahiz eta idazketa-prozesuan beste aditz askok ere lekua izan: idatzi, irakurri, ozen irakurri, norbaiti irakurri, entzundakoa idatzian txertatu, aldatu, eraldatu, itxuraldatu, ezabatu, berriro hasi, berriidatzi...

Hasteak, ordea, kili-kilia sortarazten du sabelean. Paperaren aurreko izua ez da, ordea, hain txarra. Erronka bat da. Eta erronken aurrean nork bere hautua egiten du. Esan dezakegu: "Zer zaila"; esan dezakegu: "Ez dakit nondik hasi"; esan dezakegu: "Nola egin behar ote da hori?"; edota, ezerezera salto txiki bat ematen ausart gaitzek, eta esan dezakegu: "Ea zer ateratzen zaidan".

Horixe egin dugu, Ostolaza liburutegian, astebetetz, Luzaro ikastetxeko laugarren mailako ikasleekin.

Saioen hasieran, beroketa-jokoak egin ditugu, eskua askatzeko, luma berotzeko eta irudimena abian jartzeko. Sortutako idatziak ozen irakurri dira, sormen-prozesuaren alde pertsonal eta originala aldarrikatzeko.

Gero, Literaturaren kategoria nagusiak abiapuntutzat harturik, testu txikiak abiarazi ditugu, genero

guztiak lan-tresna eta baliabide bihurtuta. Haziak izan dira, gauzak sortzeko dauden aukeren isla. Saio bakoitzaren hasieran aurreko egunean egindakoa gogoratu dugu, ohar laburren bidez. Azken finean, zein zen asmoa? Zakukada hazi eta kimurekin bueltatzea etxera, gogoa bero, eta ilusioa esna.

Plan zehatzen eta eduki egituratuaren lagungarri den zerbait eskaini nahi izan dut; ikastetxeetako material kodifikatuan txertatzeko moduko joko eta ariketak. Irakasleak dinamikaren lekuko zuzenak izan dira eta gogotsu bezain arretatsu jarraitu dute aste osoko jarduerara, ekimenarekiko konplizitate osoa erakutsiz.

OSTOLAZA udal liburutegian aritu naiz, aurreko ere, astebetetz, Luzaro ikastetxeko laugarren mailako ikasleekin.

Euskaraz sortu dugu, euskaraz imajinatu dugu, euskaraz sentitu dugu bizirik gaudela.

Plazer bat izan da.

Mila esker zuen konfiantza eta konplizitatearengatik,

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria (www.nitikgura.com)

Ibilketa Nordikoko irteera gidatuarekin agurtu dute ikasturtea mintzalagunek

Azaroan abiatutako ikasturteari agur esan diote mintzalagunek. Ekimenari amaiera emateko Ibilketa Nordikoko irteera gidatua baliatu dute aurten. Eguraldi kaskarra izan zuten ekainaren 1eko hitzorduan, baina goiz parte alai izan zuten parte-hartzaileek, umore ona eta lagun giroa nagusi.

Andoni Urkiolak gidatu zuen saioa eta ibilketa nordikoa zertan datzan ikusteko aukera izan zuten mintzalagunek, kirol modalitatea herriko zonalde ezberdinetan praktikara eramanez.

Lerro hauen bitartez, Zuhatza Euskara Elkarteak eskerak eman nahi dizkie irteera gidatua aurrera ateratzen lagundu zuten guztiei, baita mintzalagun egitasmoan aurten aritu diren kide guztiei ere. Datorren ikasturtean ere mingaina dantzari euskararen erabilera handitzea helburu duen egitasmo hau burutzeko lanean jarraituko du euskara elkarteak.



ITZIAR, DENON AHOTAN

Iazko urriaren 9an udal plenoak aho batez onartu zuen Itziarren Tokiko Entitate Txiki bat eratzeko hasierako erabakia. Harrezkero, ordea, korapilatu egin da hasiera batean aurreikusitako prozesua. Ikuspuntu, iritzi eta ekimen ezberdinak burutu dira hilabeteotan, eta proiektua “blokeo egoeran” dagoela entzun dugu behin eta berriz. Azken urratsetan dago uneotan ibilbidea; beranduenez, ekainaren 19rako erabakita egon beharko baita proiektuaren etorkizuna.

Berriketan aldizkariaren ale hau inprentara bidean zegoen unean, oraindik ere ezohiko plenoa zein egunetarako deituko zuten ez genekien -ziurrenik ekainaren 17an (asteartea) egingo da-. Nolanahi ere, azken asteotako beste gertakari batzuk ere ez dira oharkabean pasa herrian.

Maiatzaren 25ean Denon Herriak deitutako herri galdeketa burutu zen. Hauxe zen galdera: “Ados zaude auzo udala ondorengo lurraldeekin, Itziar kaskoa, Itxaspe, Egia, Mardari, Endoia, Arriola, Lastur eta Elorrixa, sortzeko?”. Bai edo ez erantzun behar zuten auzo horietako biztanleek. 864 herritarrek osatzen dute errolda, eta %72,7ko parte-hartzea izan zuen kontsultak. Botoa eman zutenen %94,7k (593 lagunek) baietza eman zuten. Kontrako botoak 26 izan ziren guztira (%4,15), bi boto nulo eta bost zuri izan ziren orotara.

Emaitzak esku artean, Alternatiba, Itziar Herria Sortzen eta Aralarreko zinegotziek agerraldi bateratua egin zuten ekainaren



Sean Debako udaletxean. Euren esanetan, “zilegia da bakoitzak bere ikuspuntua defendatzea, baina zalantzarik baldin bazegoen, argigarriak izan dira herri galdeketak auzoz auzo utzi dituen emaitzak. Auzo guztietako herritarrek oso argi adierazi dute auzo udalari dioten atxikimendua. Honen aurrean debarrei ere galdetu behar zaiela esaten tematzeak ez du inolako zentzurik, are gehiago proiektu honek debarrei ez diela inolako kalterik ekarriko ziurtatuta dagoenean. Nola erabakiko dute auzo horietan bizi ez diren biztanleek zein auzo utzi behar den auzo udaletik at?”, erantsi zuten.

Zinegotzi horien iritziz, herri galdeketa- ren emaitzek ez dute zalantza izpirik uzten “auzo guztietan auzo udalari dioten atxikimenduari” buruz. Alternatibak, Aralarrek eta Itziar Herria Sortzen-ek auzo bakoitzak esaten duena errespetatzeko konpromisoa berretsi zuten agerraldian, eta gainontzeko alderdiei ere “erantzukizunez jokatzuz, auzoek esaten dutena errespetatu dezatela” eskatu zieten, “horixe baita, gainera, oinarritzko printzipio demokratikoen”. “Auzo udala eratzearen helburua urteetako gatazka bati konponbide bideragarria eta orekatua ematea” dela ere gogorarazi zuten zinegotziek.

Azken erabakia hartzeko balioko duen plenoaren bezperetan Gora Deba Taldearen eta Denon Herriaren izenean erredakzioan jasotako iritzi bana ere irakurleon eskura uzten dugu datozen lerrootan.

ETORKIZUNAREN IZENEAN

Itziar eta Debaren arteko historia tristea da. Bazterrak herdoildu ditzake eta ez du liburu entretenigarri bat idazteko balio. Azken hamarkadotan Itziarrek bere bidea hartu nahi izan du eta Deba defentsiban agertu da, berea ei duena galtzearen beldur. Herritarrek desengainuz bizi dute arazoa, baina egunerokotasunean saihestu egiten da hizketagaia, badaezpada. Entzungor, bakoitza berean dabil. Bi mundu paralelo finkatu dira.

Joan den udazkenean adostasuna erdietsi zen Udaleko zinegotzien artean, eta hausnarketa denboraldi bat abiatu zen, esperantzaz. Parte-hartze prozesua bermatu ordez, liskar politikorako baliatu da gaia harrez gero, ordea. Tamalez, zuri-beltzeko paisaiara eraman gaitu berriro ere, alderdi politikoen ziliborkeria betikoa irudikatu da, inoren onerako ez den katramilan posizioak uzkurtuz.

Nora ez egoera gaintzeko, eta herritarren izenean, baina, herritarrek kontutan hartu gabe, politika egiterik ez dagoela uste dugulako antolatuta genuen joan den maiatzaren 25eko galdeketa Itziarren. 4 urna jarri ziren, auzo desberdinetako sentsibilitatea neurtzeko. %94,7ko kontaketa orokorra ezaguna da dagoeneko. Emaitzak emaitza, %72,7ko parte-hartzea da azpimarratzekoa, keinu demokratiko honek adierazten du auzotarren fedea eta konponbiderako borondatea, aspaldian eman den giro itxaropentsuenean. Etsipena gaintu eta aro berri baten premia piztu da. Politika egiteko modu berri baten premia. Gehiago egiterik ez dago, ozenago esaterik ez dago.

Edonola ere emaitzak ez lirateke jaso behar Debarekiko hordago gisa, aitzitik, auzotarrek konponbidearen alde eskua luzatu dute Auzo Udalaren apostuz. Gogoan izan behar da zenbat kostatzen den honaino iristea; nekez aurkituko gara berriro irtenbide atari antzekoan. Berebiziko aukera hau alferrik galtzeak beste aro ilun batean murgilduko gintuzke, eta hori onartezina da. Endekapen hau gaintu eta udal-erri bakarraren anaikidetzan bizi nahi badugu Auzo Udala da bidea.

Baina batezbestekoak ezagutzeko ez ezik, hainbaten jarrera azaleratzeko ere balio izan du galdeketak. Parte-hartzea txalotu eta ontzat hartu ordez, herri mugimenduaren gardentasuna gutxietsi eta galdeketa zintzotasuna dudatan jarri dute. Entzungor, Debako kale giroan faltsukeriak aireratzen darraite. Erabilitako argudio merke eta maltzurrek agerian utzi dute halakoen zikoizkeria. Larriena da,

bakoitzak berea predikatzeaz harago elkarbizitza arazo bilakatu dela Itziar eta Debaren arteko. Haustura sozial eta pertsonalak ditu egunerokotasunean, eta ez da gizalegekoa horrela ibiltzea. Auzo Udalarekiko kontsentsua litzateke ataka makur honetatik irteko baliabidea.

Topaguneak erdibidekoa behar du. Itziarren egina da hau-tua, segregazioa alboratu eta Auzo Udalaren autonomian konstruktiboki lan egiteko. Zer eta susmopean jarri da asmoa, salatuz segregazio- ziorako trikimailu dela. Alderantziz da hain zuzen, muturreko jar- rarak apaltzeko modua da. Aldiz, antidoto gisa asmatutako beste for- mula erdipurdikoez —Itziar kaskoa eta Itsaspe barne hartzen dituen eredu arbitrarioa kasu— erretxazo zuzenaz segregazio grina areagotuko dute, zatitzaile diren heinean.

Prozesu eratzaila eta adostasuna dira Denon Herria-ren aldarri, dagokigun lana ahalik eta ondoen egin dugu eta printzipio demokratikoan datza emaitzekiko begirunea. Galdeketa loteslea ez bazen ere, hortxe dago, eta herrialde mailako erakundeek arretaz baloratu duten heinean, ezinbestean hartu behar litzateke aintzakotzat Debako udalbatzan ere. Ekainaren hirugarren astean ospatzekoa den plenorako Auzo Udala proiektuarekiko ezezko jarrera iragarri dute alde aurretik alderdi batzuk. Auzotarren hautuari entzungor, epe motzeko interesak eta klase pribilegioak lehenesten dira, nonbait. Ez dakigu zinegotziok zenbateraino jabetzen diren beraien zurrunt- sunak dakartzan ondorio negargarriez.

Bergararik gatoz oraintxe. Gure Esku Dago gizakatean hartu dugu parte. Dozena-erdi autobuskada joan gara Debatik eta giro ederean batera pasa dugu eguna besteen ondoan itziartar eta debarrok. Baina ez dugu ulertzen zenbait alderdi eta herritar abertzalek eraba- kitzeko eskubidearen alde oihu egin eta gero herrian bestelako errezetak erabiltzea. Txundigarri zaigu aldarrikapen unibertsalak erreklamatu eta etxean ezartzeko gai ez izatea. Sinesgaitza da ikustea egun bateko jendarte jatorra nola galbideratzen den Debako kaleko errutinan. Etorkizunaren izenean, ezarri dezagun herri bezala dagokigun oina- rri demokratikoa eta eman dezagun eredu.

*Ihintza Irizar, Arkaitz Ezenarro, Eneritz Tambo
(Denon Herria-ren izenean)*



KENDU DIEZAIEGUN MOZORROA

Joan den urriaren 9an Udalak Itziarko Entitate deszentralizatua, osatzeko prozesua hastea aho batez onartu zuenetik, bai udaletik, bai alderdi politiko batzuetatik eta baita oraintsu sortutako Denon Herria plataformatik ere, propaganda mediatiko handia egin da, kartel, panfleto, eta ekitaldi publiko ugari eta buzoneatutako propaganda ere banatuz, seguru guzti horrek gastu ekonomiko garrantzitsua suposatzen duela, eta zati batean kutxa publikoetatik finantzatua izan dela.

Propaganda eta ekitaldi publikoetan, eta Denon Herriak egindakoetan batez ere, irudi atsegina erakutsi nahi izan dute, zintzotasun eta biktimismoaren arteko nahasketa, histori honetako gaiztoak GORA DEBA TALDEA herri mugimendua osatzen dugun debarrak garelako emateko. Baina irudi horrek ez du errealitatearekin zer ikusirik eta denontzako argibide batzuk egitea komenigarria iruditzen zaigu.

Entitate Txikia adostasunerako espazio bezala

Gezur hutsa da. Gezurra. Arrazoia garbi dago Entitate Txikia ez da ez ezker abertzalearentzako, ez Itziar Herria Sortzenentzako helmuga. Behin betiko segregaziorako duten bidean pauso bat da. Guztiak Debako hirikide izan gaitezen luzatu duten deiarekin ez du zer ikusirik. Ez dugu asmatu, beraiek esan dute eta egiaztatu dezakegu:

1.- Aldaketa bidean, Deba-Itziarko Ezker Abertzalearen aldizkarian, "ITZIAR eta bertako entitate txikiak" tituluaren azpian argitaratutako ohar batean irakur daiteke, gogoeta-prozesu baten ondoren, ezker abertzaleak bere ideia independentistekin bat eginez, Itziar eta bere auzoek duten segregaziorako eskubidearen alde dagoela Ezker abertzalearen ustez, Entitate Txikia independentzia lortzeko pauso positiboa da, baldin eta Itziar eta bere auzo guztiak barne dauden eta baldin eta entitate berriaren kompetentzien mailari buruz akordioa lortuko balitz.

2.- Itziar Herria Sortzen dagokionez, "Diario Vasco" egunkarian azaldutako Debako aurreko alkateak (EA) egindako adierazpen batzuei erantzunez, irakur daiteke: "... bilera desberdinetan argi utzi zen behin eta berriz IHS-ek positibotzat ulertzen zuela Entitate Txikiaren gaia sakontzea, baina ez ziotela segregaziorako bere nahia-ri inoiz uko egingo..."

Beraz, inork ezin digu bermatu etorkizunean Itziar herri independentea izango ez denik. Horregatik da garrantzitsua Entitate Txikiaren lurralde-eremua, orain onartzen dena udal berrirako erreferentzia izango litzatekeelako eta, jada txosten teknikoetan frogatu eta auzitegiek epaitu duten bezala, udalak egin onartutako lurralde-proposamenak Debaren etorkizuneko garapena larriki kaltetuko lukeelako. Horregatik ere, prebentzio moduan, adostasun puntua izan daitekeen edo izan behar duen proposamena egin dugu: Itziarko eta Itsaspeko herriguneekin osatuko litzatekeen Entitate Txiki baten eraketa. Uste dugu alde ezberdin guztien arteko orekako puntua dela.

Debako auzoak irabazten aterako dira?

Ez da egin auzoak Entitate txikiaren barne egonda irabazten iriteta

direla. Ez da horri buruz eztabaida seriorik egin nahi izan. Adibide gisa, Lasturrek dituen azpiegiturak, egin ziren unean Itziarko Entitate Txikiaren barne izan balitz, eginak egongo al lirateke? Erantzun dezatela Lasturko biztanleek.

Auzoek, beste alternatiba batzuk eztabaidatu ondoren bozkatu behar lukete, oraingo proposamena posible diren beste batzuekin konparatu ondoren, adibidez GORADEBA TALDEAK aurkeztutako alegazioetan jasotzen den moduan, kudeaketarako autonomia handiagoa izan zezaten aintzat hartuta.

Itziar Herria Sortzenen hasierako proposamenean, Entitate Txikia eratzeko justifikatzen zuten arrazoiak azaltzen ziren, besteak beste, Debako udalaren aldetik itziartarren beharrak kalitate egokiz betetzeko eskaintutako zerbitzuen emate eskasa edo itziartarrek egiten dituzten diru sarreraren pisuarekin konparatuz Itziarra zuzendutako baliabide gutxiak. Hori horrela balitz, zer egin du Udala-Gobernuak hiru urte hauetan arazoa konpontzeko? IHSek eta Denon Herriak diotenaren arabera, badirudi ezer ez edo ezer gutxi.

Kontsultari buruz

Hernaniko Ereñozun egindako prozesua eta Itziarko Entitate Txikiaren arteko konparaketa ez da serioa, manipulatuzailea baino. Ereñozuko biztanleei galdeketa, 2/2003 Foru-Arauek dioen moduan, Udalak Entitate Txikia eratzeko behin betiko akordioa hartu ondoren egin zieten. Gure kasuan ere hala egin behar zen, legeak horrela dio eta. Galdeketa udalak Entitate Txikiaren eraketarako behin betiko onespina hartu aurretik egin behar denik ez du legeak inon jasotzen. Denon Herriak burututako galdeketa, tranpa bat izan da. Bere helburu bakarria alderdi politikoak behin betiko akordioa hartu baino lehen presionatzeko hain zuzen ere. Eta kasu honetan Debako herriguneko eta Deba inguruetako herritarrok udalari gure iritzia ezagutarazteko beste herritarrek izan duten eskubide berbera dugu.

Kontsulta-prozesuan gertatu diren kontu batzuei buruz ez dugu orain inongo iruzkinik egingo. Dena den, lortutako emaitzak eta entitate txiki bat eratzeko Itziar Herria Sortzenek egindako eskarriekin batera aurkeztu zituzten sinaduren kopurua antzekoa izan zen. Horregatik, ez da ulergarria antolatzaileen neurritz kanpoko euforia eta are gutxiago ekintza probokatuzaileen bidez adierazitako poz handia, adibide gisa Debako herrigunearan igande gauean egin zuten auto karabana zalapartatsua.

Herri partaidetzari buruz

Zeregin publikoetan parte hartzea hainbeste aldarrikatu dutenek, zergatik egin dute sekretuan? Dudarik gabe parte-hartzea erreal eta irekia egin balitz, orain beste zerbaitez ariko ginen.

Entitate Txikia ez eratzeko edo debar gehienon iritzia-aren kontrako entitate bat ezartzeko ez da irtenbidea. Azken 25 urtetan bizikidetasuna hondatzen temati ibili diren bakar batzuen ondorioz sortutako arazoei bizkarra ematea da.

GORA DEBA TALDEA

Luzaroko ikasleak, herriko kaleak aztertzen

Kaixo, lagunok:

Duela zenbait aste, H.J.A. arloa ematen dugun 6.C-ko ikasleak Debako hainbat kale aztertzeraz joan ginen. Zergatik? Gaia "Gure Ingurumena" jarri genuelako.

Alde batetik, zikinkeria asko ote zegoen azertu nahi genuen eta asko harritu ginen kalean sekulako zikinkeria ikusi genuelako: plastikoa, latak, zigarroak, txakur-kaka, pipa azalak, kartoia, paperak, poliesterra, mukizapiak...



Bestetik, berriz, auzo-konposta zer den jakin nahi genuen. Hona hemen zenbait datu interesgarri:

Zer da auzo-konposta?

Hondakin organikoak ongarri natural bihurtzea, lurrari etekin handiak eskainiz.

Konposta egiteko lur naturala eduki behar da, hirian hain eskasa dena. Auzolanean konposta-

tzeak autokonpostajea komunitatean egiteko aukera ematen du, konpostatzaile bat familia batzuen artean elkarbanatuz eta egokia den toki publiko batean jarriz.

Zer lortuko dugu?

Parte-hartzaileek beraien hondakin organikoak kudeatzeko aukera izango dute, hondakin mota honen ziklo naturala itxiz eta berriro lehengai bihurtuz.

Nola egingo da?

Lehenengo fasean parte hartu nahi duten bizilagunek Udalean izena eman beharko dute.

Familia parte-hartzaileei ikastaro bat emango zaie eta etxean hondakin organikoak bereizteko beharrezkoa den materiala emango zaie. Parte-hartzaileek laguntza teknikoa izango dute uneoro, eta horren bitartez konpostajea aditu bihurtuko dituen aholkularitza jasoko dute.

Zer egingo dugu konpostarekin?

Nahi duenak norberak egindako konposta eraman ahal izango du bere etxean, baratzean etab. erabiltzeko. Soberan gelditzen dena Udalak kudeatuko du.

Azalpen hauek irakurri eta

gero, konturatu gara batzuek konposta ez dutela behar bezala egiten. Ondorioetako bat da txabolak usain txarra daukala, hondakinaren gainean hostoak ez dituztelako botatzen. Eta, gainera, pentsatzen dugu jubilatuetakoa leku desegokian kokatuta dagoela. A! Eta beste gauzatxo bat. Txabolak ez dituzte jarri erreak izateko. Agian batzuk ez dira enteratu!



**PUFFFFFFFFFFFFFFF!!!!!!!!!!!!!!
HAINBESTE LAN EGIN ONDOREN,
OSO NEKATUTA BUKATU DUGU!**



*Luzaro ikastetxeko
6.C mailako ikasleak*

Elikadura zaintzeko proposamenak Eskolako Agenda 21eko ikasleen eskutik

Maiatzaren 30ean, Debako udaletxeko pleno aretoan Mendata eta Luzaroko 40 bat ikaslek ikasturtean zehar eskolan landutako lanak aurkeztu zituzten.

Ingurugela eta Debegesa agentziaren koordinaziopean, eskualdeko ikastetxeetan **elikadura iraunkorra eta osasungarria** landu dute ikasturte honetan -egitasmoa Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du-. Debako ikasleek herriko diagnostikoa burutu dute eta Udalera hainbat proposamen eta ekarpen eraman zituzten. Maider Zubikarai alkateak eta Idoia Alvarez Ingurumen teknikariak egin zieten harrera ikasleei.

Herrian kontsumo eta birziklapen ohitura iraunkorrak bermatzeko asmoz, ikasleek egindako gogoeten artean daude, besteak beste: "Askotan ez da kontuan izaten zer eta nola jaten den. Hori dela eta, elikatzeko modu desegokiak osasun arazoak dakartzate". Euren esanetan, "azokak desagertzen ari dira, bertan erosteko ohitura galtzen ari da eta ondorioz baserritarrek beraien produktuak saltzeko arazoak dituzte. Beraz, Udalak baserritarren merkatuak bultzatu eta dinamizatu behar ditu". "Landa gunek babestea eta txukun mantentzea garrantzitsua eta beharrezkoa" dela ere nabarmendu zuten ikasleek.

Udal ordezkariak ikasleen eskaera eta proposamenak entzun eta banan-banan erantzun zituzten. Amaitzeko, alkateak eskerrak eman zizkien denei egindako lanarengatik. Batzarraren ostean, lunch "iraunkor eta osasuntsu" bat eskaini zieten ikasle eta irakasleei, urtean zehar egindako lana eskertzeko asmoz.





BERRIKETAN GAZTEA

2014ko ekaina
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

Liburuaren Eguna Mendata institutuan

Urtero bezala, aurten ere ospatu da Liburuaren Nazioarteko Eguna Mendata institutuan.

Egun hau apirilaren 23an ospatzen da, 1616. urteko egun hartan mundu mailako bi idazle esanguratsu hil baitziren; Shakespeare (ingelesa) eta Cervantes (espainiarra).

Aurten, liburutegiko batzordeko kideak Nobel Sarian murgildu dira, eta liburutegian erakusketa bat egin dute. Erakusketa honetan, Nobel Saria jaso duten zenbait liburu daude ikusgai: herrialde-ka banatuta daude, eta liburuaren ondoan idazle horren hizkuntza eta jatorrizko herrialdea zein den zehaztu dute. Erakusketa osatzeko, irakasleek eta ikasleek ekarri dituzte liburuak.



Ikasleak altxorrik preziatuenaren bila

Aurten ere Zuhatza Euskara Elkartea eta Mendata ikastetxeko Euskara Mintegia elkarlanean ibili dira idazlan lehiaketa antolatzeko. Lehiaketak oinarri eta gai zehatzak ditu –gaia, esaterako, “Altxorrik preziatuena” da– eta ikastetxeko ikasleek hartuko dute parte; bi taldetan banaturik, lehen zikloa alde batetik eta bigarren zikloa bestetik.

Epaile lanetan antolatzaileek hautatutako pertsonak arituko dira eta lan onenak **Berriketan** aldizkarian argitaratuko dituzte. Aurrez aldetik, lanak Euskara Mintegiko irakasleei entregatu beharko dizkiete ikasleek.

Sariketa bi generotan banatuta dago: olerkia eta narrazioa. Eta sariak ondorengoak dira: kategoria bietan (olerkia eta narrazioa) irabazleari 60 euro emango zaizkio eta bigarrenari 30 euro. Irabazleek bonoak lortuko dituzte, herriko dendetan gastatu ahal izateko.





ELKARRIAZ KETA



Xabi Irureta:
"Besarkada handi bat Debako Berriketaren aldizkariaren irakurleei"



Eibar futbol taldeak poz handia eman digu zaleoi, lehenengo mailara igo delako. Baina taldeak erakutsi duen gaitasunak bakarrik ez du balio lehen mailara igozko. Gertatzen dena zera da; LFPK Eibarri kapitala handitzea eskatu diola (beraiek zuten kapitala lau-koiztea).

Lege hau zor handiak zituzten taldeei begira sortu zen, talde horiek dirua lor zezaten zor horiek ordaintzeko. Talde armaginarik ez du zorrik; beraz, taldearentzako lege hau ez da justua.

Eibarren denboraldi ona zela eta, Xabier Iruretagoyenarekin hitz egin genuen igoera lortu baino lehen. Ezagunagoa da Xabi Irureta izenarekin, eta SD Eibar futbol taldeko atezain berriatuarra da. Eibar-Tenerife partida bukatu ondoren bere zain egon ginen atzeko atezain ondoan. Irten zenean beregana hurbildu eta gure galderei erantzutea onartu zuen. Galderak eta erantzunak ez dira oso luzeak, baina espero dugu zuen gustukoak izatea:

Zenbat urterekin hasi zinen futbolekin?

Gutxi gorabehera sei-zazpi urte nituenean hasi nintzen.

Zenbat urte daramatzazu SD Eibar futbol taldean jokatzeko?



Zazpi bat urte daramatzat Eibarren.

SD Eibar futbol taldean aritu baino lehenago zenbat taldetan jokatu duzu? Zeitzuk dira talde horiek?

Lau taldetan esango nuke nik. Berritxu futbol taldean, Indartsu futbol taldean, Real Union taldean eta Ondarroako Aurrera taldean.


SD Eibarren luzaroan gelditzea aurreikusten duzu?
Momentuz bi urte gehiagorako kontratua daukat.

Eibar lehenengo mailara igoko dela uste duzu?
Zaila da, baina ahaleginduko da.

Igoko balitz, zure bizitza aldatuko litzatekeela uste duzu (prentsa aldefik eta abar)?
Ez dut sekula bizi izan, baina pentsatzen dut pixka bat aldatuko dela.

Zerbait gehitzeko?

Bai, besarkada handi bat Debako **Berriketaren** aldizkariaren irakurleei, eta eskerrik asko momentu on hau eskaintzeagatik.



UDARAKO ASMOAK

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean aurtengo oporrei buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Zeintzuk dira uda honetarako planifikatuta dituzun ekintza nagusiak?
- 2.- Udako zein jai iruditzen zaizu interesgarriena? Inolaz ere galduko ez zenukeena?
- 3.- Oporretan joateko asmoa duzu? Nora? Gurasoekin joango zara?
- 4.- Udan baduzu zerbait ikasteko asmorik? Ala atsedean hartuko duzu?
- 5.- Zein izango da zure ustez denok dantzatuko dugun abestia? Zuk dantzatuko duzu?
- 6.- Futboleko mundiala jarraituko duzu? Nork irabaziko duela uste duzu?



Ibon Deba:

- 1.- Irlandara joan, kirola egin, hondartzara joan eta jairik jai ibili.
- 2.- San Rokeak, dudarik gabe.
- 3.- Oraingoan Frantziara gurasoekin.
- 4.- Baita zera ere! Atsedean hartuko dut.
- 5.- "Darte un beso". Bai, noski.
- 6.- Noski baietz. Alemaniak.




Nikolas Egaña:

- 1.- Irlandara joan, hondartzara joan, jairik jai ibili...
- 2.- San Rokeak.
- 3.- Irlandara. Gurasorik gabe.
- 4.- Atsedean hartuko dut.
- 5.- Oraindik ez dago jakiterik.
- 6.- Bai. Brasilek.



Julen Bollain:

- 1.- Kirola egin, surfa batez ere.
- 2.- San Roke jaiak.
- 3.- Ez, Deban geldituko naiz.
- 4.- Ezta pentsatu ere! Atsedean hartuko dut.
- 5.- Ez dago jakiterik.
- 6.- Bai. Holandak.



Telmo Soto:

- 1.- Hondartzara joan eta jairik jai ibili.
- 2.- San Rokeak eta Kopraixak.
- 3.- Bai, Galiziara gurasoekin.
- 4.- Bai, asko ikasiko dut.
- 5.- "Pintxo pintxo". Bai.
- 6.- Bai. Belgikak.




Miren Aizpurua:

- 1.- Irlandara joan eta jairik jai ibili.
- 2.- San Roke jaiak.
- 3.- Lagunekin Irlandara joango naiz, ingelesa ikastera.
- 4.- Atsedean hartuko dut.
- 5.- "We are one" mundialeko abestia. Bai, noski.
- 6.- Bai. Alemaniak.



Roke Etxeberria:

- 1.- Hondartzara joan, kanpora joan, buzeatzera joan.
- 2.- San Rokeak.
- 3.- Bai, Italiara joango naiz.
- 4.- Ez dut ezer ikasiko.
- 5.- Ez dakit.
- 6.- Bai. Brasilek irabaziko duela uste dut.



DenBord-pasaK

LABIRINTOA

SUDOKUA

5 Labirintoa

Osa ezazu ezagunak diren arauak jarraituz.

3			7			8	
7						3	
	4	3	1	2	6	7	
9				8		1	
	7	2		1		5	
		4	9	6	2		
	3			1		6	
	9			4		7	
4		6	2		3	8	9

HIEROGLIFIKOAK

1

Zer inporta zaidan? Niri...

2

Noiz egiten du eguraldirik txarrena?

EGILEAK: Maite Aldabaldetrekua eta Unai Matias

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALDEA 2013-2014

Aitor Gonzalez
Alex Martija
Unai Matias
Ekaitz Zubimendi
Kimetz Juaristi

Maite Aldabaldetrekua
Alex Alonso
Julen Aristi
Josu Arufe
Inigo Egaña

Koordinatzailea: Aritz Meabasterretxea

Umeen begiradaren indarra



Ikasturte honen hasieran, Amaia Zinkunegik umeei ipuinak kontatzeko helburua zeukan talde batean sartzeko proposamena luzatu zidan; lehenengo harridura momentuak pasatu ondoren, baietz esan nion jarraian. Baina, baldintza bat ipini nion: kontaketa bat egingo nuen; baina, nire burua gai ikusten ez banuen edo taldekideek ez baninduten ondo ikusten, kontakizun hura lehenengoa eta azkena izango zen.

Ipuin kontaketen saioak prestatzeko lehenengo bilera antolatu genuen eta bertan konturatu nintzen taldeko mutil bakarra nintzela. Amaia Zinkunegiz aparte inork ez geneukan esperientziarik jende aurrean ipuinak kontatzen, nahiz eta bik (Mari Searak eta Naia Rodriguezek), noizean behin, beren ikasleei kontatzen zizkieten. Egia esan bi horiek oso ausartak izan ziren eta bolondres moduan aurkeztu ziren lehenengo saiorako. Sua apurtzeaz gain, ipuinak nola kontatzen ziren ikusteko aukera eman ziguten besteoi (Amaia Larrañaga, Irati Baroja eta ni neu). Aldi berean taldearen garapenerako beharrezkoa izan den erabaki bat hartu genuen: saio bakoitza baino astebete lehenago, kontalariok taldeko beste kideei aurre-kontakizun bat egingo genien ekarpenak, zuzenketak, eta abar jaso ahal izateko.

Egia esan lehenengo saio hura oso arrakastatsua izan zen eta asko animatu gintuen aurrera jarraitzeko. Laster heldu zen nire txanda ere. Egia esan ez zitzaidan batere kostatu ipuina aukeratzea, irakurri nuen lehenengo momentutik ipuin hori nik kontatzeko modukoa zela

konturatu nintzelako. Baina gauza bat zure buruari kontatzea da eta beste gauza bat jendearen aurrean egitea. Kontakizunaren egunean, Amaiak berak, Irati Barojak eta hirurok ipuin bana kontatu behar genuen. Egun horretan konprobatu ahal izan nuen kontatu aurreko urduritasuna pasatu egiten zaizula hitz egiten hasi eta umeen aurpegia ikusi bezain pronto. Haiek dira protagonistak eta beren begiradarekin animatzen zaituzte ipuinarekin jarraitzera. Gustura sentitu nintzen, baina oraindik gogoratzen dut nola eusten nion, gogor, bi eskuekin, ipuin liburuari, itsasoan itotzen ari den pertsona batek flotadoreari heltzen dion bezala.

Taldekideek aurrera jarraitzera animatu ninduten eta beste erronka batzuk planteatu nizkion nire buruari. Lehenengoa, beste ipuin bat kontatzea ipuina bera eskuan eduki gabe; eta bigarrena, beldurrezko ipuin bat kontatzea. Tartean Koldo Amestoyk ipuin kontaketa-ri buruzko ikastaro bat eman zigun eta, poliki-poliki, jende gehiago animatu zen taldean sartzera: Ainara Unanue, Eunete Urkia, Ana Ugartemendia, Laura Aldabaldetrekua eta, azkenean, beste mutil bat, Jabi Oneka. Guztion artean 8 saio eta 35 ipuin baino gehiago kontatu ditugu. Uste dut emandakoa baino askoz gehiago jaso dugula denok; aldi berean pertsona bezala asko hazi garela. Baina agian onena: noizean behin, Debako kaleetan gabiltzala, ume baten eskertza begirada antze-man dezakegu; eta horrek ez dauka preziorik.

Joxerra Gómez

Paella txapelketako antolatzaileak, esker onez



Aurtengo paella txapelketa antolatu dugun guraso taldearen partez, eskerrak eman nahi dizkiegu laguntzaile eta parte-hartzaile guztiei.

Bestalde, goraipatu nahi dugu hainbeste urtetan zehar katekista taldeak ekingitza honetan burututako lana.
Paella txapelketako antolatzaileak

Geoparkearen Gunea inauguratu dute Turismo Bulegoan

Maiatzaren 29tik ekainaren 8ra Europako Geoparkeen IV. Astea burutu da. Bertako ondare natural, geologiko eta kulturala herri-tarrei gerturatzeko bilatzen du egitasmoak; eta, horretarako, era askotariko jarduerak antolatu dira Deban, Mutrikun eta Zumaian, hala nola adituen hitzaldiak, doako bisita gidatuak edota nekazaritza azoka bat. Geoparkeen Astea aitzaki hartuta, Euskal Kostaldeko Geoparkeko balio nagusienak biltzen dituen erakusketa gune berri bat ere inauguratu da Debako Turismo Bulegoan.



Maiatzaren amaieran inauguratu zen Geoparkearen Gunea Debako Turismo Bulegoan eta harrezkero herritar guztiei zabalik dago.

Turismo Bulegoaren barruan dago gunea. Erakusketa modulu bat diseinatu eta eraiki dute propio, bertan Geoparkearen balio garrantzitsuenak bildu nahian. Batetik, pantaila handi batean Geoparkearen promoziorako ikus-entzunezkoa ikus dezake bisitariak. Bestetik, Geoparkeko altxorrik preziatuenak bertatik bertara ikusteko aukera ere badago. Bitrinetan hainbat pieza baliotsu jarri dira ikusgai: Debako Septaria bitxiak, Mutrikuko Ammonite erraldoi bat, Zumaiaiko arrasto fosilak, duela 100 milioi urte bizi izan zen koral adarkatu bat, estalagmita baten sekzioa (non bere eraztunetan azken milaka urteetako klima aldaketak irakur daitezkeen) eta, azkenik, erakusketako harribitxia: Venusaren eta 14 piezaz osaturiko Praileaitzeko lepoko famatuaren erreplika zehatz bakarra.

Argazkiekin eta mezu laburrekin jantzi dituzte paretak, flyscha, karsta eta gure herrian sustrai sako-

nak dituzten ohiturak erakutsiz.

Europako Geoparkeen Astearen baitan antolatutako hitzorduei dagokienean, Xabier Peñalver arkeologoak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek, Deban, ekainaren 5ean, eskainitako hitzaldia nabarmendu daiteke. "Geoparkeko arbaso zaharrenen argazkia (Ekain, Praileaitz...)" izenburupean aritu zen arkeologoa. Bestetik, ekainaren 7an GeoAzoka edo Geoparkeko I. Nekazaritza Azoka egin zen Deban.

Deban harriaren erabilera ezagutu eta ulertzeko ibilaldi gidatua -Hector Fano geologoaren eskutik eta "Harria" ikus-entzunezkoaren aurkezpena ere Geoparkeen Astearen baitan burutu ziren. Badihardugu Euskara Elkartearen laguntzarekin egin dute bideoa, "Ahotsak" egitasmoaren baitan, eta Geoparkeko biztanleen ahozko ondarea ezagutarazteaz gainera, bertako euskaldun zaharrek oraintsu arte izan dituzten ohitura eta bizimodua erakutsi nahi du. Bideoa ikusgai dago sarean -Youtuben aurki daiteke, "geoparkea: harria" idatzita, adibidez-

Lasturren jokatu da Hiru Txirlo txapelketako finala

33 txirlorrek, Soraluzeko Jose Antonio Nuñezek irabazi du Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketaren 45. edizioa. Emakumezkoetan Asola Berriko Olaitz Rodriguez eibartarra izan da onena, eta taldeka ere Asola Berri A izan da garaile. Ekainaren 8an jokatu zen finala, Lasturko bolatokian. Ondoren, bazkaria eta sari banaketaz gain, omenaldia egin zieten Jose Ramon Zuloaga "Milaproz" eta Jose Andres Zabala "Arrajola" bolari ezagunei.



"Euskadi Gastronomika"



Eusko Jaurlaritzak eta Debegesak "Euskadi Gastronomika" ekimena sortu berri dute, eskualdean kalitatezko turismo gastronomikoaren aldeko apustua eginez. Guztira, ostatu, enpresa eta turismo enpresarien artean, 39 zerbitzu bereiztu dira Euskadi Gastronomika marka berriarekin; eta marka berri hori Eusko Jaurlaritzak ematen duen turismo sustapenerako bereizgarria da.

Gainera, debabarrenaturismo.com webguneko gastronomia atal berria aurkeztu dute eta, ekainean, esperientzia gastronomiko ezberdinak egiten ari dira eskualdeko zenbait herritan.

XXVIII. Antzerki Astea

Antzerki Asteko teloa ireki da eta gozatu ederra hartu dugu aurten ere eskaini dizkigun emanaldiekin. Pastela ederra eta handia izanik, egunean zati-txo bat janez dena dastatzeko aukera izan dugu.

Jende ugari ibili da eta gure tarta banatzerakoan zati txiki-txikiak egin behar izan ditugu, etorri diren antzerki jale guztien artean banatzeko.

Oso pozik eta kontent ibili gara parte hartu dugun guztiok, antzerkilarri, ikusle, antolatzaile, laguntzaile eta nola ez GOAZ TALDEA Debako herriak urtero lez emandako erantzunarekin.

Datorren urtean ere gure esku dagoen guztia egingo dugu beste zapo-re askotako antzerkiak ekarri ahal izateko.

MILA ESKER GUZTIOI!

GOAZ Antzerki Taldea



Euskara

emaiozu euskararil dale al euskeral

Udako ikastaroak
Cursos de verano

ikasturteacurso
13/14
matrikula zabalik
matrícula abierta

UDAL EUSKALTEGIAK

UDA IKASTAROA

- ▶ Iraupena: 80 ordu
- ▶ Ekainaren 27tik uztailaren 24ra (3 ordu egunean) Irailaren 8tik 19ra (2 ordu egunean)
- ▶ Prezioa: 123 euro €
- ▶ Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 77 euro €
- ▶ Bekatze-sistema
- ▶ Matrikulaldia: ekainaren 24ra arte


LAN-POLTSA

DEBABE Udal Euskaltegiak 3 urterako lan-poltsa sortu behar duela jakinarazten du. Bertan izena eman nahi dutenek Elgoibar, Deba eta Mutrikuko udaletako web orrietan eta Udal Euskaltegiatako DEBABEren webgunean irakurri ahal izango dituzte oinarriak.

Dokumentazioa Elgoibarko Udal Euskaltegioko Idazkaritzan aurkeztu behar da.

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Ifar Kalea, 12 - 20820 DEBA - GIPUZKOA
Telefonoa: 943 192 236
E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net



Agenda

Ekainak 20, ostirala

-17:00. **Ur jolasak herriko neska-mutilentzat**, hondar-tzan. Kuadrillategik antolatuta.

-22:00. **Kontzertua: "A Santo de Qué"**, Kultur Elkarteko plazan.

Ekainak 21, larunbata

-20:00. **Kalez Kale Txistulari taldearen kontzertua**, udaletxeko arkupetan.

Ekainak 22, igandea

-10:00. **Ibilketa Nordikoko irteera gidatua.**

Ekainak 23, astelehena

-18:00. **Sorgin Ipuinak** (herriko ipuin kontalariak), Kultur Elkarteko plazan.

-22:00. **San Juan sua**, Debako eta Itziarko plazetan.

Ekainak 24, asteartea

-11:00. **San Juan Eguneko erromeria**, Santa Katalinan.

Ekainak 27, ostirala

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politiko-koen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

-20:00. **Organo kontzertua**, Elizan.

-22:00. **"Errimak oinetan"** (Iturri ondoan). Plaza zaharrea.

Ekainak 28, larunbata

-11:00. **Amaiak Bat** taldearen Urteroko Batzar Orokorra. Kultur Elkartean.

-11:00. **Ibailagun**, Deba ibaiaren garbia (portuan)

-20:00. **Kontzertua: "FAURÉREN REQUIEMA"**, Elizan.

-22:00. **San Pedro bezpera**. Zahagi erretzea, plaza zaharrea.

Uztailaren 3tik 6ra

-**Zaporeen feria**, zumardiko kioskoan.

Uztailak 4, ostirala

-22:30. **Zinea: "Emak bakia"**, Kultur Elkarteko plazan.

Uztailak 5, larunbata

-**Merkatu Txikia**, estalitako pasealekuan. Goizean.

-**Gisatu lehiaketa**, Debalaik antolatuta (Aldatsen).

-**Giza Proba, Gipuzkoako Txapelketa**, Euskal Jolasen.

Uztailak 11, ostirala

-22:00. **Antzerkia. "Mariaeraskin zu izan zaitezke"** (Borobil Teatroa), plaza zaharrea (Iturri ondoan).

Uztailak 12, larunbata

-**Garagardo Festa**, Gaztetxean.

Uztailak 13, igandea

-**Lasturko mendi lasterketa**.

Uztailaren 16tik 19ra

-**Galerna Festa**.

Uztailak 18, ostirala

-22:00. **Kontzertua: Deba eta Zumaiako musika bandak**. Kioskoan.

Erakusketak

-**Durangoko margolari taldearen** erakusketa izango da ikusgai Agirre jauregian, ekainaren 19tik abuztuaren 6a bitarte.

ra egongo da Elizako klaustroan, uztailearen 5etik abuztuaren 31a bitartean.

-**Gonzalo Etxebarria** artistaren lanak ikusteko auke-

-**Baroja Collet** artistaren erakusketa hartuko du Agirre jauregiak, uztailearen 11tik uztailearen 27ra.

Udako Zinema Gaztetxean

-Ekainaren 18an eta 25ean, eta uztailearen 2an eta 9an

zineaz gozatzeko aukera egongo da Gaztetxean.

Kartel lehiaketa

-**San Rokeak 2014** Kartel Lehiaketa: Jai Batzordeak herriko jaietarako kartel lehiaketa antolatu du. "Abuztuak 14tik 18ra. 2014 San Roke Jaiak Deba" izen-

burua eraman beharko dute lanek. Uztailearen 15etik 20ra bitartekoa izango da lanak aurkezteko epea. Informazioa: 943 19 28 40 edo www.deba.net.

Geoparkeko irteera gidatuak

-Euskal Kostaldeko Geoparkeak bisita gidatu ezberdinak eskainiko ditu udan. Horien gaineko informazio eguneratu eta

osatu jasotzeko, www.geoparkea.com ataria kontsultatu edo deitu Debako Turismo Bulegora (943 19 24 52).

Udako ordutegia liburutegian

-Ekainaren 23tik aurrera, Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegia izango du. *Liburutegi oroko-

rra: astelehenetik ostirale-
ra, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Udako kirol kanpaina

Debako Udaleko Kirol Sailak udako kirol kanpaina zabaldu du. Izen-ematea zabalik dago jadanik, Turismo Bulegoan. Piraguismoa, surfa,

body boarda, xakea, igeriketa...
Ikastaroen inguruko informazio gehiagorako: www.deba.net edo Turismo Bulegoa (943 19 24 52).

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **ekainak 27, 28, 29, uztailak 7, 8, 9, 10.**

Burgoa Zuazo: **ekainak 23, 24, 25, 26, uztailak 11, 12, 13.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: ekainak 28
uztailak 6
BURGOA ZUAZO: ekainak 21
uztailak 12 eta 19

9:30 - 13:30




ZURE

ENTZUMENA

ZAINTZEN

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS Uzuri



RPS: 183/12

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206
Tel. faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK



Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPIZKOA)

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482
ase.deba@teletelne.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



*Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi



Pintxoak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 618 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

English Academy
**NORTH
STREET
ENGLISH**



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

Bordatxo

JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376

Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aforiak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza
eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
Lleidako Unibertsitatea eta Madril.

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.
Implantologia Masterreko Irakaslea.
Lleidako Unibertsitatea.

Kirurgia Masterreko Irakaslea.
Salamanca Unibertsitatea.

Unibertsitate Institutioetako Irakasle gonbidatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona,
Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga...
Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian,
Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

**Eibarko
Dendarien Elkarte**
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN
TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN,
CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ,
SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA,
AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSAIUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta
finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com